

# Ura itun berrien erasoen aurrean

## Bizigaia ala baliabide ekonomikoa?

### Laburpena

Merkataritza eta inbertsioari buruzko itunen bolada berriak ezin tresna aproposagoak dira ondasun komunak pribatizatzeko. Mekanismo sofisticatuak diren testu horien bidez, arriskuan jartzen da azken bi hamarkadetako baliabideen kudeaketa birmunizipalizatzeko joera. Uraren Kultura Berria bezalako ekimenak garatzeak ahalbidetuko digu Ura izateko Giza Eskubidea eta justizia klimatikoa betetze bidean aurrerapausoak ematea.

*Gako-hitzak: Nueva Cultura del Agua, birmunizipalizatzea, merkataritza eta inbertsioari buruzko itunak, ekofeminismoa.*

### Abstract

The global trend of trade and investment treaties are the perfect tool for the privatization of common goods, including water. They include in their texts sophisticated mechanisms that put at risk the world trend of the last two decades to remunicipalisation of resource management. The New Culture of Water allow advancing in the fulfillment of the Human Right to Water and climate justice.

*Keywords: The New Culture of Water, remunicipalisation, trend of trade and investment treaties, ecofeminism*



Ruth Pérez Lázaro  
Uren kudeaketa integraleko ikertzailea.  
Fundación Nueva Cultura del Agua  
(FNCA)

Bidaltze data: 2020-10-09  
Onartze data: 2020-06-15



Ura, baliabide magikoa, bizitza- eta emozio-iturri, leialki zaindu izan dute gure arbasoek. Munduko herriek garrantzi gorena aitortu izan diote, jainkosatzen hartzeraino: Mexikoko tlaxkalteka kulturaren, esaterako, Chalchiuhtlicue dute; Indian, Ganga; eta eskandinaviar mitologian, Njörðr. Historiak erakusten digu zer lotura estua izan duen urak pertsonen identitatearekin, eta baita haien sinesmen, lotura emozional eta edertasunaren ulertzeko erarekin ere

Mundu globalizatu honetan, non planetaren biodibertsitatearen mugekin jolasten den, uraren kulturak balio garrantzitsu bakarra du: ekonomikoa. Murgilduta gauzkan sistema kapitalista eta heteropatriarkala saiatu da —eta baita, hein handi batean, lortu ere—, uraren dimentsio guztiak sinplifikatu eta baliabide produktibo bihurtzen, urre urdin izateraino. Horren ondorioz, 700 bat milioi pertsonak ez dute ur edangarririk eskura, eta 2.600 bat milioi ur-saneamendurako azpiegitura egokirik gabe bizi dira (OME, 2019). Egoera larria da benetan, 2010ean giza eskubidetzat onartu baitzuten Nazio Batuek. Akaso hutsalak iruditu lekizigukeen datu horiek sufrikarioa eragiten diote milioika pertsonari, zeinek ezertarako aukerarik gabe, pobrezian, bizibidea atera ezinda, bizilekuz aldatzera-eta behartuta bizi behar izaten duten. Horrek guztiak iparraren eta hego globalaren arteko arrakala handitzea eta genero-desberdintasuna areagotzea dakar.

Uraren krisi globala krisi sistemiko zabalago baten barruan kokatzen da. Elkarri lotutako kausa ugari daude atzean, eta konplexua da horren analisi kritikoa egitea. Klima-aldaketa, pribatizazio-prozesuak, obra hidrauliko handien eraikuntza,

nekazaritza intentsiboa, erregai fosiletan oinarritutako ekoizpen- eta energia-ereduak, besteak beste, egungo egoera erakusten duten faktore nabarmenetako batzuk baino ez dira. Kausa horiek nagusi den eredu kapitalista neoliberalari erantzuten diote, non bizitzaren beraren iraunkortasuna hari-harian dagoen.

Merkatu librearen logika pean, botere korporatiboa —enpresa transnazionalak izanik bertako eragile nagusiak— ondasun komunez jabetzen ari da (uraz, basoez zein lurrez), baina baita ondasun ukiezinez ere (ezagutzaz, kasu), betiere inpunitatearen arkitektura juridikoak babestuta. *Modus operandi* hori sostengatzen dute hainbat erakunde multilateralek —Munduko Bankuak (MB), Nazioarteko Diru Funtzak (NDF) eta Munduko Merkataritza Erakundeak (MME)— eta estatu gehienek. Merkataritza eta inbertsioari buruzko itunen bolada berria erreminta ezin egokiagoa da engranaje honentzat.


Merkataritza eta inbertsioari buruzko itunek ondasun komunengan (bereziki urarengan) izan ditzaketen eraginak ulertzeko, garrantzitsua da pribatizazio-prozesuei erreparatzea. Vandana Shiva definitutako «uraren paradigmen gerrak» areagotu egin dira, eta baliabidea ulertzeko bi ikuspegi kontrajarri aurrez aurre jarri: batetik, ikuspegi holistikoa (ura aktibo ekosozializat du, eta garrantzia ematen die biodibertsitatearekin, identitateekin eta emozioekin lotutako funtzioei); bestetik, ikuspegi murriztailea (ura input ekonomikotzat duena). Bata, gestio publikoaren aldekoa, ekofeminista, parte-hartzailea, lurraldeari lotutakoa eta ura ondasun komunarekin lotzen

duena; bestea, sektoreko onura transnazionalak lortzearen, pribatizazio-prozesuak mesedegarritzat dituen. Adibide bat ematearren, Veolia eta Suez enpresa handien esku dago 100 milioi pertsonaren ur-hornidura, zeinak Fortune zerrendan 97. eta 153. lekuan dauden (Fortune, 2019).

Mundu mailako pribatizazio-prozesuak eredu frantses sotilaren bidez ezarri dira, hain zuzen, EPP elkarte publiko-pribatuaren eredia ezarrita. Honela defini daiteke eredia: gobernu eta enpresa pribatu baten arteko kontratua, zeinak enpresaren esku uzten duen jabari publikokoa izandako zerbitzu bat finantzatzea, eraikitzea eta bertan eragitea. Maiz, tokiko gobernuak ezartzen dituzte, zor publikoa txikitzeko asmoz, zerbitzua efizienteago egitearren eta azpiegiturretan teknologia zein inbertsio berriak ezartzearen.

Alabaina, EPP horien abantailak nahiko zalantzarriak dira, are uraren kudeaketaz ari bagara. Hornidura-zerbitzuak berezko monopolioz hartzen dira, eta horrek oso arriskutsu bihurtzen du pribatizazio bidean jartzea. EPPek merkatuan sartzeko lehiakortasuna susta dezakete, baina ez merkatukoa. Hau da, egon badago lehiaketa publiko bidez emakida lortzeko lehia iragankor bat, baldin eta ez bazaio zuzenean enpresa bati esleitzen. Behin emakida esleituta, zerbitzua monopolio pribatu batek kudeatuko du hamarkada luzez, berrikusteko zailak diren baldintzetan eta lehengoratzeko klausula gogorrekin.

Praktikan, merkatuetako lehiakortasun errealearen maila jaitسي egiten da. Udalak kudeatzen duenean, hainbat



ekintza (teknologia berriak eskuratzea, mantentze- zein modernizatzeko-lanak, eta beste askotariko ekintza ugari) merkatuara joaz kontratatu ohi dira; bertan, lehiaketa publiko bidez, espezializatutako enpresa txiki eta ertain ugari daude lehian. Bigarren mailako inputen merkatua deitzen zaio horri, non kudeaketa-zerbitzuetatik eratorritako irabazkiak baino gehiago dauden jokoan. Haatik, zerbitzua operadore transnazional baten esku egonez gero, bigarren mailako inputen merkatua blokeatu eta blindatu egiten zaio kompetentziari, enpresa handiek lanetarako beharrezko baliabide propioak dituzten heinean. Horren ondorioz, merkatuko lehiakortasuna txikitu egiten da. Hala, izatezko monopolio-egoera agerian geratzen da, izan ere, herritarrek (nahiz eta bezeroak diren heinean hornitzailez aldatzeko aukera izan beharko luketen) errealitatean ez dute operadorearen gaineko kontrolirik, ez baitute hornitzailez aldatzeko aukerarik.

Egitura honetan, EPPek, zeinak uraren transnazional handien filialez osatuta egon ohi diren, irabazkiak ziurtatuta dituzte eta beste sektore batzuetan espekulatzeko aukera dute. Portugaleko kontu-ikuskarien auzitegiak udalerrri eta enpresa pribatuen arteko kontratuetako gardentasun falta erakutsi zuen; horrek zaildu egiten du inbertsioen kalitatea eta inplikazio finantzarioak ebaluatzea. Mundu osoko komunitateetako esperientzietan oinarritutako ikerkuntza enpirikoek erakusten dute porrot egin duela eredu hauek eskaintutako zerbitzuen efizientziak eta, gainera, tarifak igorazi dituela (EPSU, 2014).

Horiek horrela, EPPak buru dituzten pribatizazio-prozesuek erantzun kolektibo bat izan dute, zerbitzuak birmunizipalizatzea eskatu duena, hau da, uraren kudeaketaren ziklo osoa (hornidura eta saneamendua) berriro ere kudeaketa publikoaren esku uztea eta kontrol demokratiko osoa izatea. Azken 15 urteetan 235 birmunizipalizatze-kasu izan dira, zeinek 100 milioi pertsonari baino gehiagori eragin dien (Kishimoto, 2015); horien artean daude Berlin, Paris edo Buenos Aires hiri enblematikoak. Birmunizipalizatzeak kostuak gutxitzen dituen frogak argiak daude; Parisek, esaterako, 35 milioi euro aurreztu zituen (EPSU, 2016) lehen urtean. Gainera, eraginkortasuna eta gardentasun-maila hobetu egiten dira, eta naturarentzat zein pertsonentzat jasangarriak diren kudeaketa-ereduak eraikitzea ahalbidetzen du.

Indar itxaropentsu hau herritarrek justizia klimatikorako duten nahiak adoretu du eta Europa mailako ekimenetan antolatu dira, Right2water-en, esaterako, eta espainiar estatuan, RAP Red de Agua Pública-ren (Ur Publikoaren Sarea) eskutik, Pacto Social por el Agua (Uraren Hitzarmen Soziala) ekimenaren barruan. Mugimendu horien azpian kudeaketa-eredu publiko bat zehaztearen garrantzia datza, eredu demokratiko eta ekofeminista bat.

Merkataritza eta inbertsioari buruzko itunek arriskuan jarri dute apustu hori; mahai gainean dauden negoziaketa ilun batzuk, MERCOSUR kasu, edota berriki berretsitako CETA. Horiek ez dute zuzenean administrazio publikoaren antolatzeko modua negoziatzen, baina, zeharka bada ere, zerbitzuen nazioarteko merkataritzaren arauak eragin handia dute udalerrietan. CETA arautzen duen testuan, esaterako —zeina espainiar senatuan urriaren amaieran onartu zen— anbiguotasunak eta baldintza legal nahasiek pisu handia dute. Ura, berez, ez da merkantziatzat ez eta produktutzat hartzen, baina bai bere erabilera oro (giza kontsumorako erabiltzen denean, saneamendurako, ekoizpen-erabileretarako edo ureztatzeko).

CETA da Europar Batasunak zerrenda negatiboaren ikuspuntuaren pean negoziatu duen lehen merkataritza eta inbertsioari buruzko ituna; hau da, zerrendan agertzen ez den guztiari eragiten dio itunak. Hala, Alemanian izan ezik, ezin izango da hornidura- eta saneamendu-zerbitzuak babesteko erreserbarik ezarri.

Anbiguotasunaz gain, kezkatzekoa da itun horrek (zein gisako beste batzuek) birmunizipalizatzeari jartzen dion harrresi igaroezina, zeina kooperazio arautzailearen mekanismoen bidez, edota karraka-efektuarekin edota inbertsore-estatu arbitraje pribatuaren bidez lortzen duten. Kooperazio arautzaileak nazioarteko enpresei aukera ematen die zerbitzu publikoekin lotutako araudia blokeatzeko. Karraka-efektua aplikatuta, sektore bat liberalizatutakoan, ez dago atzera-bueltarik. Hau da, birmunizipalizatzearen joera geldiarazten da. Ondorioz, EPPen monopolio naturala mesedetzen da, bigarren mailako merkatuak gotortuz eta norbanakoei tarifak igoz, beste sektore batzuetan espekulatzeko ahalbidetzen dieten irabazi ziurrak lortzeko. Hori gutxi balitz bezala, inbertsoreen eta estatuen arteko arbitrajearen bidez, enpresa transnazionalak auzitegi pribatu





batera jo dezakete gobernuei auzia jartzeko, baldin eta uste badute araudia aldatzeak euren irabaziei eragiten diela.

Merkataritza eta inbertsioari buruzko itunak korporazio-indarren erreminta indartsuak dira, horiei esker enpresa transnazionalak euren konfort-zonan aritzen dira, irabaziak lehenetsiz eta bizitzaren eta kapitalaren arteko gatazka tentsionatuz (Perez, 2017). Alternatiba kontrahegemonikoak eraikitzerakoan, premiazko erronka da mugimendu sozialek erakutsitako energia eta inteligentzia berberaz babestea ondasun komunak. Ura, baliabide berdingabea, Uraren Kultura Berri baten barruan aitortu beharra dago, Chalchiuhtlicue jainkosa bezala, pertsonen eta planetaren bizitzaren erdigunean jarrita.

///

Erredakzioan itzulia

### Bibliografia

EPSU (2014): *Public and Private Sector Efficiency: a briefing for the EPSU congress* by PSIRU, Public Services and the EU.

EPSU (2016): *Water Remunicipalization Tracker*, Paris.

Fortune Magazine (2019).

Kishimoto S.; Lobina E. & Petitjean O. (2015): *Our Public Water Future. The global experience with remunicipalisation*.

OMS (2016): *Progress on sanitation and drinking-water*, Brusela [ISBN: 978 92 4 156395 6].

Pérez Orozco, A. (2017): *Aprendizajes de las resistencias feministas latinoamericanas a los tratados de comercio e inversión*, Traficantes de sueños, Madril [ISBN:978-84-96453-48-7].